

Mendi magalean



ARTXIBOKOA

dena da arraza bat diskriminatu», dio Barruetabeña. Jose Luis Berasategiri ere ondo iruditzen zaio: «Nik, bat ezik, beste guztiak huskyak eramango ditut, baina bakoi-tzak nahi duena eraman dezala, nik ez dut arazorik ikusten».

Alaskano arrazako zakur-
rrak baimentzeak, era bere-
an, urte hauetan guztietan
zakurrak hazten eginiko lana
antzu egin du neurri batean,
Euskal Herriko musher guz-
tiek husky talde on bat lortu
arte gurutzaketa asko egin
behar izan baitituzte, eta
hori, jakina, denboran eta
diruan garestia da oso, eus-
kal musher guztiek jakinarazi
digutenez.

Euskal Herriko 10 partaideak



► **Maite Barruetabeña**
Debarra, 2. aldia

Iaz ezustea eman zuen, lehen aldian 14. izan baitzen. «Aurten iaz baino zakur askoz indartsuagoak daramatzat, nire taldea Santi Campose-narekin osatu baitut». Alaskano-ak eta huskyak eramango ditu, eta aurrenekoen artean egotea du xede, «podiumean ahal bada».



► **Javier Romero**
Iruindarra, 2. aldia

Iaz euskaldunen artean onena izan zen, 12. Aurten are zakur talde hobea duela dio, lan egiten duen Soltxate hazte-
tegikoak denak. «Zakurrak eta ni iaz baino askoz indartsuago gau-
de, baina aurkarien maila ere hobea da, eta zaila izango da aurrean izatea», dio Romerok.



► **Baltasar Gallardo**
Iruindarra, 3. aldia

Aurreko bi aldie-
tan 17. eta 14.
izan zen. «Aurten joan den urteko zakurrekin hartuko dut parte, nahiz eta hiru berri sartu ditu-
dan. Hamabietatik 6-7 oso onak dira, baina beste erdiak juxtuxe-
ago doaz. Horregatik, hoge-
i aurrenekoen artean amaitzen badut gustura».



► **Juanxo Lasa**
Iruindarra, lehen aldia

«Lehen aldia iza-
nik, bukatzeare-
kin aski nuke»,
adierazi digu.
Duela hiru urte
hasi zen boxer batekin, eta egun
18 husky ditu. Pirenara 12 era-
mango ditu, urte eta erdi eta bost
urte bitartekoak. «Gidaria bera
da zaharrena, esperientzia
gehien duena», dio.



► **Jose Luis Berasategi**
Hernaniarra, 6. aldia

Aurten bi zakur
berri sartu ditu
taldean, berak
hazitakoak. Guz-
tira 12 ditu, eta haiexek eraman-
go ditu zeharkaldira. «Oso maila
ona da aurten, Pirena irabazi
duten hiru musher daude...
Beraz, erdi parean amaitzearekin
ondo», azaldu digu.



► **Axen Garitano**
Bergararra, 5. aldia

Garitanok soilik
bederatzi zakur
eramango ditu,
apurka emeak
kentzen eta harrak jartzen ari
delako. Ondorioz, «erdialdean
egotea» izango du helburu.
«Zakur seguruak dira, urte asko
nirekin daramatzatenak. Batek
10 urte ditu, baina lana ondo
beteko du, eta maitea dut oso».



► **Iker Ozkoidi**
Iruindarra, 4. aldia

Iruindarrak 20
urte ditu, eta
beteranoetako
bat da zeharkal-
dian, laugarren
aldiz izango baita. «Aurten buka-
tzearekin konforme nintzateke,
zakur-talde berria baitaramat.
Denak urte eta erdiko kumeak
dira. Badabiltza, baina obeditze-
ko oraindik pixka bat falta zaie».



► **Salva Luque**
Berindarra, 3. aldia

Aurreko bi aldie-
tan 23 eta 30.
izan zen. Aurten-
goa «orain arteko
aldi gogorrena»
izango dela iragarri du, partaide-
en maila dela eta. Beriandarrak
ere zakur talde hobea duela jaki-
narazi digu, berak hazitakoak
guztiak. «Zakur gazteak dira, eta
dezente dabilta», azaldu digu
Salva Luquek.



► **Jesus Raigoso**
Iruindarra, lehen aldia

Raigosok bi aldiz
hartu du parte
Pirenan, baina
aurreko bietan
laguntzaile
moduan, Gallardo eta Oscar
Espinosen laguntzaile gisa.
Aurten bere 10 zakurrekin eta
utzitako birekin joango da,
Onda-Ramblasek emaniko
laguntzari esker. Lehen 20en
artean izatea du helburu.



► **Iban Uriondo**
Gasteiztarra, lehen
aldia (Pulka)

Uriondo Axen
Garitanoren es-
kutik hasi zen
duela bi urte, eta apurka zaku-
rrak biltzen joan da. Egund 10 di-
tu, baina, gehienak kumeak dire-
nez, hirurekin hartuko du parte,
eskiatzen. «Askos neketsuagoa
da eskiekin, baina polita ere bai».

zangoak txango

ibilaldiak ▶ urtarrilak 23-24

Arrasate (*Besaide*) • Mendiko eski zeharkaldia Sallen-
ten (Tena bailara). Elurrari buruzko ikastaroa
emango da irteeran. Informazioa: 79 84 74.
Lizarra (*Lizarra M.T.*) • Palomares. Tel: 55 22 35.
Zarautz (*Pagoeta*) • Mandubia, Izazpi, Loreto, Urresti-
lla. Ondoren babarrun-jatea. Tel: 13 29 11.
Iruñea (*Txantrea M.T.*) • Itxina.
Hernani (*Mendiriz Mendi*) • Urdelar (852 m.).
Donostia (*C.V.Camping*) • Perurena bentak, Susperre-
gi, Urdaburu, Abaño, Arano. Tel: 42 84 79.
Andoain (*Euskalduna*) • Aia, Pagoeta (714 m.), Urda-
neta, Aizarna, Zestoa. Tel: 59 22 32.
Iruñea (*Nafarroa K.E.*) • Canal Roya, Anayet, Formigal.
Errenteria (*Urdaburu*) • Candanchu. Nahi duenak al-
pino eta nahi duenak fondo. Tel: 52 78 79.
Gasteiz (*Gasteiz M.T.*) • Urigoiti, Atxular begia, Lekan-
da (1.302 m.), Barazar mendatea. Tel: 25 03 54.
Meatzaldea (*Meatzal-Fabrik*) • Alto Campoo.

▶ urtarrilak 30-31

Oiartzun (*Girizia*) • Oiartzun, Bianditzeko lepua, Zu-
bieta. Izen ematea Amazkar dendan.
Urretxu (*Goierri*) • Mendiondo, Urtsumendi, Kanbo.
Iruñea (*Nafarroa K.E.*) • Aurtitz, Arantza. Tel: 22 43
24.
Hernani (*Mendiriz Mendi*) • Iraupen eskiko irteera.
Gasteiz (*Peña Karria*) • Okina, Okinako amildegia, Sa-
seta, Markinez. Tel: 27 05 91.
Leioa (*Leioa M.T.*) • Areso, Ulizar (868 m.), Leaburu.
Azpeitia (*Lagun Onak*) • Izaspi. Tel: 81 20 25.
Donostia (*C.V.Camping*) • Lizarrusti, Putxerri, Erre-
naga, Txamen, Beloki, Baraibar. Tel: 42 84 79.
Arrasate (*Besaide*) • Madarixa, Izarraitz, Zestoa. Tel:
79 84 74.
Eibar (Kirol Elkarte) • Uzturre. Tel: 20 19 04.

ikastaroak ▶ Urtarrilak 25etik 29ra

Donostia (*C.V.Camping*) • Metereologian hasteko
ikastaroa, Gloria Latasaren eskutik. Atmosfera,
eguraldi mapak, haizea, ura eta beste hainbat fakto-
re aztertuko dira. Informazioa: 42 84 79.

▶ Urtarrilak 30-31

Donostia (*Mendiak eta Herriak*) • Goimendietako has-
tapen ikastaroa Orhi mendiaren inguruan. Bestal-
de, korridoreetan igoera eta segurtasun ikastaroa
Teleran. Argibideak: (948) 51 32 33.

▶ Otsailaren 1etik 7ra

Donostia (*C.V.Camping*) • Orientazio ikastaroa Neka-
ne Itxastiren eskutik. Informazioa: 42 84 79.

emanaldiak ▶ Urtarrilaren 22tik aurrera

Iruñea (*Nafarroa K.E.*) • Joseba Ugaldek *Pirineos: hielo y nieve. Historias de un invierno* proiektzioa eskaini-
ko du gaur, taldearen egoitzan (Jarauta, 78).
Oiartzun (*Girizia*) • Mendiko XII. jardunaldiak. Astele-
henean, hilak 25, Joxe M. Arbelaz *Baxerri-k Patago-
nia 97: Hegoaldeko izotz muturra* proiektzioa emango
du. Asteartean Gasherbrum II eta Errobert Larra-
dabururen txanda izango da. Asteazkenean taldea-
ren 98ko irteerak erakutsiko dira irudietan. Ostegu-
nean Antxon eta Gaizkak Patagoniako Painen zabal-
dutako bideari buruzko proiektzioa emango dute, eta
gaur zortzi Kike de Pablok Shisha Pangmari buruz-
koa. 20:00etan udaletxeko aretoan.
Iruñea (*Gaztaroa*) • Mendiko astea. Astelehenean, hi-
lak 25, Mikel Zabalzak Dunagiriako ipar aurpegian
eginiko igoera azalduko du irudietan. Asteartean,
Rafa Santestebanek Kukenan-Tepui hormako eska-
lada. Asteazkenean, Inaki Otxoa de Olzak Lhotsen
bakarka eginiko igoerari buruzko proiektzioa eska-
niko du, eta gaur zortzi Joseba Elorrietak Evereste-
ko Iparraldean japoniarren bidean eginiko saioa
azalduko du. Emanaldi guztiak San Jorge ikastetxe-
an izango dira 20:00etan.
Zarautz (*Pagoeta*) • Datorren ostegunean, Inurategi
anaiek *Kordadako lagun galdia: Manaslu-Dhaulagi-
ri, Jala Peri* izeneko proiektzioa eskainiko dute. Lizar-
di antzokian 20:00etan.